

# Tratu onen gida

Haur eta nerabeen tratu onerako eskubidea bermatzearen alde dauden irakasle eta aktibistentzako hezkuntza-proposamenak



Haurrekin  
harremana baduzu,  
**traturik  
onena  
eman  
iezaiezu**

**Izenburua:** Tratu onen gida. Haur eta nerabeen tratu onerako eskubidea bermatzearen alde dauden irakasle eta aktibistentzako hezkuntza-proposamenak.

© Educo (2024)

*Agiri hau osorik edo zati batean erreproduzi daiteke, edozein bitarteko edo prozedura erabiliz, betiere informazio-iturria aipatzen bada eta helburu komertzialik ez badago.*

**Koordinazioa:** Intzidentzia, Mugikortasun eta Ikerketa Sozialeko zuzendaritza

**Ekoizpena:** Gema Luengo, Carolina Gasca, Miriam Torán

**Lankidetza:** Lupe Juárez, Cristina Sancha, Mónica Viqueira, Helena Juanes, Paula San Pedro de Urquiza

**Zuzenketa:** Judith Escales

**Zuzendaritza kreatiboa eta maketazioa:** Elena Martí

**Irudiak:** M Maggiorini tailerra

**Argazkiak:** Educo agiritegia

Agiri honetako argazkiak adibideak baino ez dira, eta ez dute inondik inora edukia islatzen.

Agiri honetan jorratzen diren gaiei buruzko informazio gehiago nahi baduzu, idatzi helbide honetara:  
**educo@educo.org**

# Edukiak

|                                                                                        |           |
|----------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>Tratu onak, haurren eta nerabeen kontrako indarkeria prebenitzeko lehen urratsa</b> | <b>5</b>  |
| <b>Ongi tratatzen dituzula uste duzu?</b>                                              | <b>8</b>  |
| Prest zaude hurrekin eta nerabeekin lan egiteko eta haiekin batera ikasteko?           | 10        |
| Balioetan hezteak                                                                      | 10        |
| Babesa: Tratu Onen Arkua                                                               | 11        |
| Partaidetza, elkarlanaren erronka                                                      | 12        |
| <b>Egingo dugu tratua?</b>                                                             | <b>15</b> |
| Zenbat denbora behar da garatzeko?                                                     | 15        |
| Prozesurako proposamenak                                                               | 17        |
| <b>Ondorioak eta gomendioak</b>                                                        | <b>30</b> |
| <b>Informazio gehiagorako</b>                                                          | <b>31</b> |
| Bibliografia                                                                           | 31        |
| Webgrafia                                                                              | 31        |
| Educo-ren baliabideak                                                                  | 31        |





# Tratu onak, haurren eta nerabeen kontrako indarkeria prebenitzeko lehen urratsa

Haurrek indarkeria bere begiz ikusten dute komunikabideetan, sare sozialetan eta eguneroko inguruneetan. Haurren eta nerabeen (aurrerantzean, HN) kontrako indarkeriak, tratu txar fisikoak eta abusua ez ezik, kulturalki onartutako jarduerak ere biltzen ditu, hala nola astintzea, ez sinestea, barregarri uztea, iraintzea eta elkarriketa batean modu iraingarrian isilaraztea, adin txikiagoa izateagatik soilik. Indarkeriaz jarduten duten helduak eredu txar bat dira HNentzat, eta, izan ere, jokabide horiek oso nabarmenak ez direnean ere, normalizatu egiten dituzte, eta parekoen arteko harremanetan eta beste testuinguru batzuetan errepikatu (eskolan, adibidez).

Haurren kontrako indarkeria prebenitzeko, ez da aski salatzearekin. Halaber, beharrezkoa da ongi tratatzen diren inguruneak sortzea, non helduak eredu diren. Aldi berean, babesari buruzko legeak betearazi, eta jarduera-protokolo zehatzak landu behar ditugu. Ondo tratatzea "errespetuz hitz egitea" edo garrasi ez egitea baino haratago doa. HNen tratu ona bermatzeko, entzute aktiborako baliabideak erabili behar dira, eta partaidetza sustatu. Hala, ingurune seguruak (eta eraginkorrak) sortu behar dira, eta indarkeria prebenitu.

## Nerabeen ustez zer da tratu ona?



**Nire ustez, tratu ona da errespetuz tratatzen gaituztenean, eta entzuten gaituztela, guk esandakoa ulertzen dutela eta zentzuzkoa dela erakusten digutenean. Ez gaituztenean ergeltzat, sinesberatzat eta inozotzat hartzen (...)" .**

**14 eta 17 urte bitarteko nerabeak ("Tratu Onen" kanpaina).**

**Haurren Eskubideen Hitzarmenean (HEH)<sup>1</sup> eta Haurrei eta Nerabeei Indarkeriaren Kontrako Babes Osoa emateko Lege Organikoan (HNIBLO)** jasotakoa betez, helduok tratu onak bultzatzeko erantzukizun etikoa daukagu.

“Tratu Onen” kanpainak haurren eskubideak ditu oinarritzat, eta helburu du haur eta nerabeekin harremana duen pertsona orok **tratu onaren bidez babes eta konfiantzazko eremuak sortzen dituztela bermatzea**. Horregatik, komenigarria da helduek HNekin arauak eta konpromisoak adostea, tratu onen bitartez elkarri errespetatzeko, eta, hala, guztion ongizatea sustatzeko.

**Gida hau irakasleei zuzentzen zaie bereziki.** Gure iritiz, ikastetxeko bizitza gizartearen isla da, eta HNek denbora asko pasatzen dute bertan. Irakasleek aukera dute indarkeriaren gaian sakontzeko eta horren gainean eta erlazionatzeko modu berriak bilatzearen beharraz sentsibilizatzeko. Uste dugu hezkuntza-komunitatea eredu izan daitekeela, eta gure laguntzaz, lan hori ikusaraz dezakeela, eta, haien lanak, era berean, gizartean zabaltzeko gaitasuna duela, jokabide-ereduen eta balioen aldaketa bultzatzeko.

**Kanpainako jardueretan parte har dezakezue, web honen bitartez: [www.elmejortrato.es](http://www.elmejortrato.es). Esparru teorikoa ezagutuko duzue, eta HNen ustez haur eta nerabeak ongi tratatzea zer den irakurri.**

<sup>1</sup> Nazio Batuek argitaratutako Haurren Eskubideak, gaztelaniara itzultitako bertsio ofiziala. Ingelesetik gaztelaniara egindako itzulpenean, maskulinoa erabiltzen da soilik. Hori ekiditeko, neskak eta mutilak barne hartzen dituen “haur” hitza erabiliko dugu.





# Ongi tratatzen dituzula uste duzu?



Inoiz pentsatu duzu ikasleak ongi tratatzea ikasgelako espazioak diseinatzeko moduarekin ere lotuta egon litekeela? Edo atsedeen-denborak antolatzeke moduarekin? Edo erabilitako ahots-tonuarekin?

Noizbait ikasleren batek zerbait kontatu, eta garrantzia kendu diozu? Edo baliteke inor hurbildu ez izana, eta hori euren kezkak zurekin partekatzeke beldurraren edo konfiantza ezaren ondorio dela ohartu ez izana?

Zure ustez ikasleei interesatuko zaizkien ideiak zuzenean antolatzen dituzu? Ala haiei galdetzen diezu, eta haien ideiak, kezkak, beharrak, etab. entzun?

**Galdera horiek hausnarrarazi egin badizute, gida honek aurrerapausoa egiten lagun diezazuke.**

Ondoren, proposamen metodologikoa aurkeztuko dizugu, ikastetxeetan tratu onerako inguruneak sortzen laguntzeko. Educo-k uste irmoa du hezkuntzak babestu egiten gaituela, eta badakigu zeinen garrantzitsua den ikastetxeetan praktikaren bidez

eredu ematea. Horregatik, erakundeetan haurrak babesteko nazioarteko estandarrak sustatzen ditugu, [PROTEGEmos](#) metodologiaren bitartez, eta haurren partaidetzarako prozesuak burutzen ditugu, hala nola [“Entzute aktiboa” kanpaina](#). “Tratu Onen” kanpainak lan-ildo horietan ditugun esperientzia eta ezagutza konbinatzen ditu, **haur eta nerabeentzat konfiantza, babes, partaidetza eta tratu onerako inguruneak eraikitzeko.**

**Tratu onerako guneak sortu nahi dituzten irakasle eta ikasleei “tratu onen aktibista” bilakatzea iradokitzen diegu.** Esan nahi baita, elkarrenganako errespetuan eta entzute aktiboan oinarritutako bizikidetza sustatzera gonbidatzen ditugu. Horretarako, honako helburu hauek ahalbidetzen dituen metodologia bat aplikatzen dugu: nor bere burua hobeto ezagutzea; espiritu kritikoa eta ikaskuntza kolektiboa bultzatzea; ingurunea diagnostikatzea; bizitako egoeren gainean hitz egitea; ingurunea hobetzeko eta eraldatzeko eta kausarekin bat egitera bultzatzeko irtenbideak bilatzea. **Metodologia parte-hartzailean eta “Educo-ren Tratu Onen Arkuaren”<sup>2</sup> esparru teorikoan** oinarritutako ekimena bultzatu dugu, ikastetxeetan aplikatzeko, eta haien komunitatean gaur egun hain beharrezkoa den bakearen kultura zabaltzeko. Ekimenak 4 lan-ardatzak hobetzeko proposamenak barne hartzen ditu: espazioa eta denbora, komunikazioa eta hizkuntza, emozioak eta autozainketa eta harreman pertsonalak eta bizikidetza.

<sup>2</sup> Edoco 2-ren Tratu Onen Arkua. 2021ean, María Carme Boqué Torremorellek Tratu Onen Arkua metodologia garatu zuen *Aquí buen trato* izeneko agirian, Educo-ren Babes Batzordearentzat.



## **Eskubideen aldeko ekintzaileak, tratu onaren aldeko ekintzaileak.**

Azken urteotan, HNak hainbat gairen alde mobilizatu egin dira, hala nola klima-aldaketa eta gerrak. Adina ez da besteei laguntzeko ekintzak gauzatzeko oztopo. **“Haurren aktibismoa” deritzon mugimendu horretan, HNak aldaketak sustatzeko kanpainen eragileak dira, eta oro har, politikarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin lotutako gaiak jorratzen dituzte.** Aktibismoa garrantzitsua da, arazoak ezagutarazteko eta gai zehatzen gainean sentsibilizatzeko. Gainera, herritartasuna aktiboki gauzatzeko modu bat da.

Educo-k **badaki HNek gaitasuna dutela aldaketa sozialak bultzatzeko;** besteak beste, indarkeriarik gabeko inguruneak lortzea, eguneroko eremuetan tratu onen kultura sustatuz. **HNei zeregin horretan laguntzera animatzen zaitugu.** Eta hartara, Gazte aktibistentzako gida irakurtzea gomendatzen dizugu, HNek haurren eskubideen alde bultzatutako kanpainak eta ekintzak babesteko. “Tratu Onen” kanpainan ere parte har dezakezu, eta ekintzaile *tratuongilea* bilakatu.

**Zer esan nahi du *tratuongile* izateak?** *Tratuongilea* haur eta nerabeak ongi tratatzearen aldeko ekintzailea da; hau da, enpatia, entzute aktiboa eta errespetua aplikatzen ditu egunerokoan, haur eta nerabeekin jardutean.

Gure ustez, gure proposamen pedagogikoa **baliabide interesgarria eta baliagarria** izan daiteke, **tratu onerako eta ongizaterako koordinatzailearentzat.** Horregatik, ikastetxean tratu onak sustatzen dituzten ekintzak bultzatzeko eta irakasleei eta ikasleei zeregin horretan laguntzeko eskatzen diogu. **Badakigu komunitatearen lana oso garrantzitsua dela. Pertsona bakarrak ezin du gizartea eraldatu, eta indarkeriarik gabeko**

**inguruneak sortu.** Hezkuntza-komunitatearen eta ingurunearen laguntza behar du. Zuzendari-taldeek, irakasleek, irakasle ez diren langileek, familiarek, inguruko erakundeek eta, bereziki, ikasleek, laguntzeko ahalmena eta betebeharra dute, erantzukizunak hartu behar dituzte, eta aldaketa bultzatu behar dute. Espero dugu proposamena gauzatzen duen Educo-ko taldearentzat bezain ilusionagarria izatea hezkuntza-komunitatearentzat.

## Ongizate eta babeserako koordinatzailea

HNIBLOren aurrerapauso handienetako bat da 25. artikuluan ongizate eta babeserako koordinatzailea sartzen duela (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa aldatzen duen Lege Organikoak barne hartzen du jada). Kargu hori ohikoa da beste hezkuntza-sistema batzuetan; esaterako, sistema britainiarrean zaintzailea (*safe-guarding*) lanbide-profil bat da. Eginkizun horren xedea da ikasleek eskubideak eremu fisikoetan zein birtualetan babestea. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitateak bat egitea, eta haurrek eta nerabeek ere parte hartzea. Izan ere, haur eta nerabeek haien eskubideei eta euren burua entzunarazteko moduei buruzko prestakuntza jaso behar dute eta horiek ezagutu, eta komunikazio-gaitasunak hobetzeko jarduerak burutu. **Educo-ren txostena (2023b)** ikusi.

## Prest zaude haurrekin eta nerabeekin lan egiteko eta haiekin batera ikasteko?

Ondoren, gure proposamen metodologikoa azalduko dizugu. Hezkuntza, babesa eta partaidetza konbinatzen ditu, HNak ere aldaketaren protagonista izan daitezen.

### Balioetan hezte

HNak artatzen dituzten eta haiekin aritzen diren helduak gonbidatzen ditugu HNak balioetan heztera, helburu izanik ikasleek harremanetan tratatu onak izateko beharrezkoak diren konpetentziak, estrategiak eta tresnak bereganatzea, eta, hartara, helduei eskatzen diegu belaunaldien arteko erlazio horretan eredu izatea. Orokorrean, ekidin beharreko portaera txarrak irakatsi ohi dira: ekintza desagokiak, debekuen eta zigorren zerrenda luze bat da.

Educo-k, aldiz, alderdi positiboak lantzea proposatzen du, "etika praktikara eramatea", eta ez teoria hutsean geratzea, eta praktikaren baitan lan egitea, "HNekin batera" eta ez "HNentzat".

HNek sentitu, jakin eta esperimentatu behar dute erlazio positiboak eraikitze gaitasuna eta aukera dauzkatela, eta erlazio positibo horiek haien ingurunean eragin dezaketela eta hura eraldatu. Eskubideetan oinarritutako ikuspegia sustatu behar dugu, Haurren Eskubideen Hitzarmena abiapuntu izanik, eta alderdi fisikoa, psikologikoa, emozionala, soziala eta espirituala garatzen dituen pentsamoldea bultzatu. Prozesu horretan, garrantzitsua da HNen ezagutzak eta esperientziak baloratzea, eta horiek hartzea ildo nagusitzat, haien interesen, motibazioen eta kezken isla baitira. Halaber, helduok gehiegi babestea eta nagusikeriaz aritzea ekidin behar da, ikasleekin erlazionatzean portaera automatizatuak sortzen baitituzte.

### Balioak zaintzea:

- Haurren Eskubideen Hitzarmenarekin bat datozen erreferente argiak ezagutaraztea eta ematea.
- Hezkuntza-komunitatearen egunerokoan, balio hauek nola garatzen diren ikusaraztea eta ebaluatzea: errespetua, entzutea, elkarriketa, begikotasuna, zintzotasuna, berdintasuna, tolerantzia, demokrazia, askatasuna, gupida, solidaritatea, itxaropena, bakea eta justizia.
- Tratu pertsonalizatua ematen saiatzea, HNen errealitatera egokituz.
- HNen esperientziak eta ezagutzak aitortzea eta baloratzea, eta haien partaidetza sustatzea.
- Adinaren, generoaren, gizarte-estatusaren, eta abarren arabera, pertsonak izan ohi ditugun aurreiritziak eta ahalmenak identifikatzea.
- Aldaketa pertsonal, kolektibo eta instituzionalerako prest egotea.

### Babesa: Tratu Onen Arkua

HNak talde zaurgarria direnez, ezinbestekoa da arriskuak prebenitzea eta haurren aurka eragindako edozein indarkeria-motaren aurrean esku hartzea. Educo-k uste du garrantzitsua dela protokolo argiak ezartzea, azkar eta eraginkortasunez detektatzeko, komunikatzeko, jarduteko eta esku hartzeko estrategiak jasotzen dituztenak (hala nola [PROTEGEmos](#) programan eskainitako baliabide ugariak).

**Gure aburuz, gertatu nahi dugun hori prebenitzeaz gainera, garrantzitsua da gertatu beharko litzatekeenaren gaineko ikuspegi proaktiboa ematea, haur eta nerabeak bizikidetza positibo baten bitartez babesteko.** Horretarako, tratu onen kultura sistematikoki praktikatzea iradokitzen dugu.

Hala, haur eta nerabeekin lotutako zazpi printzipioak zintzotasunez betetzen diren aztertu behar dugu, eta ez direla haur eta nerabeak manipulatzeko erabiltzen. Zazpi printzipio horiek "Tratu Onen Arkua" deritzona eratzen dute: guneak, denbora, hizkuntza, emozioak, bizikidetza, autozainketa eta balioak. Proposamen pedagogiko honetan, balioen printzipioa zeharkako ardatza izango da, eta gainerakoak multzo bakarrean sartu ditugu, zazpi oinarriak lau lan-ardatzetan modu praktikoagoan lantzeko.



### Tratu Onen Arkuaren lan-ardatzak:

1. **Espazioa eta denbora:** ingurune fisikoa zaintzea (irisgarria, balioanitza, naturala, garbia, estimulatzaileria, jasagarria eta esperimentaziorako, sormenerako eta jolaserako egokia izan dadin); eta denboretan aniztasuna eta aberastasuna sustatzea (jardueretarako eta atsedenerako, bakarkakoa eta taldekoa, egituratua zein askea, mugimenduzkoa eta lasaitzekoa, etab.).
2. **Hizkuntza eta komunikazioa:** hizkuntza afektiboa eta eraginkorra erabiltzea (ez bortitza, asertziozkoa, adeitsua, entzute enpatikoarekin, irisgarria eta informatzeko eskubidearekin).
3. **Emozioak eta autozainketa:** giro emozional ona lantzea (enpatia, erosotasuna, afektibitatea, berotasuna, poza, umore ona, ongizatea, zoriontasuna), eta nork bere burua zaintzeko eta erresiliente izateko gaitasunak eta estrategiak sustatzea.
4. **Harreman pertsonalak eta bizikidetza positiboa:** pertsona arteko lotura konstruktiboak ezartzea, harrera, babesa, kide izatearen sentimendua, elkarri zaintzea, hurbiltasuna, gatazkak era baketsuan kudeatzea, adostasuna, kalteak konpontzea, barkamena eta adiskidetzea, arau demokratikoak eta partaidetza.



### Partaidetza, elkarlanaren erronka

Educo-k haurrak protagonista bilakatzearen alde egiten du. Haurren Partaidetzarako Politika bat dugu, eta “Entzute aktiboa” kanpaina gauzatu genuen. Kanpaina hura HNek proposatuta abiatu zen, haien ustez, haurren kontrako indarkeriari aurre egiteko, ezinbestekoa baita entzutea, sinestea eta kontuan hartzea.

HNak aktiboki entzutea sustatzeko, partaidetza-prozesuak eskubideen ikuspegitik egitea aholkatzen dugu, Haurren Eskubideen Hitzarmenaren hainbat artikulutan eta bereziki


12. artikuluan jasotakoari jarraikiz. Zuzentzarako horien arabera, haurrek eskubidea dute eragiten dieten gaietan entzunak eta kontuan hartuak izateko. **Ez da nahikoa partaidetza eta jardun demokratikoa hezkuntzaren eremuan nola aplikatu azaltzen duten testuak irakurtzea eta aurkezpenak entzutearekin, benetako partaidetza-espazio batean gauzatu behar dira.** Tratu ona modu parte-hartzailean bultzatzeko, besteak eta guztien ongizatea errespetatzen, ingurukoekin erlazionatzen, iritziak kontuan hartzen, adosten, konpromisoa hartzen, erantzukizunak bere gain hartzen eta gatazkak modu baketsuan konpontzen ikasi

behar da. Horretarako, garrantzitsua da hainbat gaitasun garatzea, hala nola entzute aktiboa, kontzientzia soziala, elkarrizketa eta asertziozko komunikazioa, eta baita bakoitzaren gaitasunak enpatiaz eta elkartasunez kontuan hartzea ere. **Hori guztia erronka bat da, HNentzat zein helduontzat. Alderdi biek landu behar dituzte**

**jarrera eta konpetentzia horiek, eta horretarako, belaunaldi arteko harremanen gainean hausnartu behar da eta gaitasun horiek aplikatu eta heldukeria saihestu** (portaeren, komentarioen, jarrerren, ekintzen, etab. bitartez, pertsona gazteagoekin boterea erabiltzea).

#### **Partaidetza-prozesuaren faseak:**

- **Antolatzea: hasteko, talde eragileak informatzea eta antolatzea gomendatzen dugu.** Talde eragileak ikaslez eta pertsona helduez (irakasleak, familiak eta irakasle ez diren langileak) eratutako taldeak dira. Hasierako egoera aldatzeko eta hobetzeko ekintzak diseinatzeko dituzte; kasu honetan, eskolan tratu ona bermatzeko ekintzak. Taldeak erabakiak hartuko ditu, eta hezkuntza-komunitatean garatuko diren jardueren ibilbidea diseinatuko du. Ikasleak ikasgelako taldea izan daitezke, "ikasle bitartekariz" osatutako taldea, ordezkari-batzordea, boluntarioz edo "ikasle laguntzailez" osatutako taldea, etab.
- **Ezagutzea eta ikertzea:** hasierako egoera diagnostikatzeko jarduerak burutzea proposatzen dugu. Horretarako, ikasleei Tratu Onen Arkuan jasotako lan-ardatzei buruz galdetuko zaie.
- **Hausnartzea eta hitz egitea:** diagnostikoan oinarrituz, solasaldiak burutzea proposatzen dugu, emaitzak aztertzeko. Horrez gain, ideia-jasa egingo dugu, hobekuntza eta eraldaketarako proposamenak biltzeko.
- **Planifikatzea eta eraldatzea:** aurreko faseko ideietatik abiatuta, ekintza-plana diseinatuko da; hots, proposamenen lehentasun-ordena ezartzea, jarduerak planifikatzea, horiek gauzatzeko zer behar den erabakitzea, norbanako eta taldeko erantzukizunak zehaztea eta bere gain hartzea, etab.
- **Ebaluatzea eta ikastea:** prozesu osoan zehar, akatsak ebaluatzea eta horietatik ikastera gonbidatzen dugu.
- **Komunikatzea, ospatzea eta aitortzea:** tratu onak zabal daitezen, ezinbestekoa da ekintzak eta ikaskuntzak ezagutaraztea, lorpenak ospatzea eta horiek ekarritako poza hedatzea eta egindako lana aitortzea.





Ondoren, lan-prozesu bat jaso dugu, helduek eta HNek beren hezkuntza-eremuan tratatu onen alde elkarlanean aritzeko.

## Hezkuntza-komunitateei:

- 11 eta 17 urte bitarteko ikasleak eta irakasleak (baita familiak edo irakasle ez diren langileak ere).

- ikasgelako taldea edo maila eta/edo gela desberdinetako ikasleak izan daitezke (“ikasle bitartekariak”, ordezkari-batzordea, boluntarioak edo “ikasle laguntzaileak”, etab.). Bilerak eta jarduerak egiteko eta antolatzeko denbora eman behar zaie.

- Gutxienez ikasturte bat erabiltzea aholkatzen dugu. Ez da behin-behineko jarduera bat. Aldaketa esanguratsuak lortu nahi baditugu, ezinbestekoa da hobekuntzarako eta aldaketarako prozesu bat martxan jartzea, ikasleen laguntzaz eta ikerketan eta ekintzetan oinarrituz.
- Talde eragilearekin egindako lana sei saiotan bana daiteke, eta tartean, bestelako zereginak antolatu. Lan-batzordeak sor daitezke, zereginak eta erantzukizunak banatzeko. Horrez gain, komenigarria da hainbat jarduera burutzea, eskolako beste kideei zuzenduta.

The diagram consists of four interconnected circles arranged horizontally. Each circle contains an icon and is accompanied by a short paragraph in Basque.

- Circle 1 (Green):** Contains an icon of two hands shaking. The text below it reads: "Tratu onak babes integrala bermatzeko lehen pausoa dira. Ezinbestekoak dira konfiantza eta babesa eskaintzen dituzten espazioak sortzeko."
- Circle 2 (Yellow):** Contains an icon of a hand holding a small plant. The text below it reads: "Tratu onak eraiki eta mantendu egin behar dira, ohitura aktibo, natural eta kontziente bihurtu arte."
- Circle 3 (Orange):** Contains an icon of a face with a red prohibition sign over it. The text below it reads: "Tratu onak jarrera desagokiak edo bortitzak ezabatzea baino askoz gehiago dira."
- Circle 4 (Teal):** Contains an icon of an open book with flowers and butterflies. The text below it reads: "Tratu onek giro adeitsua eta segurua sortzen dute, eta haurrek eta nerabeek beren eskubideak gauzatzeko baldintzak bermatu."



# 6 **saio** prozesu kolektiborako, helduek, haurrek eta nerabeek eskolako eremuan tratu onen alde lan egin dezaten.



## 1

### **ANTOLATZEA**

Talde eragile bat sortzea, ikastetxean aldaketa-prozesua zuzentzeko eta haren funtzionamendurako oinarrizko erabakiak hartzeko.

## 2

### **EZAGUTZEA-IKERTZEA**

Diagnostiko pare-hartzailea egitea, Tratu Onen Arkuari buruzko galdeketa eginez.



## 3

### **HAUSNARTZEA ETA HITZ EGITEA**

Mahai-ingurua antolatzea, emaitzak partekatzeko, eta bertan, berdintasunezko elkarriketa sustatzea.



## 4

### **PLANIFIKATZEA ETA ERALDATZEA**

Ekintzen proposamenak biltzen dituen lan-agenda sortzea.



## 5

### **EBALUATZEA ETA IKASTEA**

Prozesuan zehar eta amaieran, behaketak eta balorazioak egitea.



## 6

### **KOMUNIKATZEA, OSPATZEA ETA AITORTZEA**

Ikasitakoa eta lortutakoa jakinaraztea, eta horiek ikusaraztearen onura baloratzea, ingurukoak tratu onak praktikatzera bultzatzeko dituen bozgorailua den heinean.



## Prozesurako proposamenak

# 1. saioa

**Antolatzea: nor gara eta zer landuko dugu?**

**Ikastetxean aldaketa-prozesua zuzenduko duen talde eragilea sortzea** planteatzen dugu. Ikasleak, irakasleak eta hezkuntza-komunitateko beste pertsona batzuk (irakasle ez diren langileak, familiak, etab.) bilduko ditu. **Ikastetxeko ongizate eta babeserako koordinatzaileak aktiboki parte hartzea** planteatzen dugu. Hasierako bileretan, talde eragileak proposamenaren berri eman dezake, aurkezpen-dinamikaren bat egin (izotzaldia urtu, eta taldean sartzearen zergatiak eta horren gaineko itxaropenak azaldu, taldean giro atsegina eta segurua sortzeko), edota x testuren bat irakurri eta galdera hauei buruz eztabaidatu:

- Zer da guretzat indarkeria? Zer dira guretzat tratu onak?
- Helduek badakite haurrei entzuten eta haiek babesten?
- Haurrek eta nerabeek beren eskubideak ezagutzen dituztela eta legeak eskubide horiek babesten dituela uste dugu? Zer egin genezake hezkuntza-komunitateak eskubide horiek ezagut ditzan?
- Tratu Onen Arkuan jasotako gaietatik, zein landuko dugu?
- Nork parte hartuko du?, noiz parte hartuko dugu?, nola parte hartu nahi dugu?
- Oinarrizko zer erabaki hartu behar ditugu, talde eragilearen funtzionamenduari dagokionez?



### Baliabideak:

- Educo-ren "Tratu Onen" kanpainaren informazio- eta motibazio-bideoak.
- [Haurren Eskubideen Hitzarmena](#) [haurrei eta nerabeei zuzendutakoa](#). Argitaratzailea: Plataforma de Infancia. Webguneak Adin desberdinetara egokitutako gidak ditu.
- [Gida didaktikoa, 13 eta 17 urte bitarteko nerabeekin](#) [haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzko lege organikoa lantzeko](#). Argitaratzailea: Plataforma de Infancia. Indarkeria definitzeko eta HNIBLO ezagutzeko jarduerak proposatzen ditugu.
- [PROTEGEmos](#) programaren baliabideak: Babeserako eta tratu onerako inguruneak sortzeko lehen urratsak emateko baliabideak. Indarkeriari buruz hausnartzeko jarduerak.
- "Entzute aktiboa" kanpainaren baliabideak dinamika desberdinekin: ["Entzute aktiboa" gida](#) eta ["Entzute aktiboa" sorta](#).

## 2. saioa

### Ezagutzea eta ikertzea: zer egoeratan gaude?



Diagnostiko parte-hartzailea antolatzea iradokitzen dugu, premisa hauei jarraikiz:

- **Ikastetxeko ikasleek** galderei erantzunez parte hartuko dute.
- **Galdetegia** egitea planteatzen dugu, Tratu Onen Arkuan jasotako 4 ardatzetan oinarrituz. Ardatz bat edo gehiago aukera daitezke. Horietako bakoitzean, hainbat galdera hautatuko ditugu, eta ikastetxeko testuingurura egokitu (hiztegia, termino espezifikoak, etab.). Bestelako galdera batzuk ere sar daitezke, talde eragileak lan-ardatz bakoitzean tratu onei buruz egindako gogoetak kontuan hartzeko. Era horretan, galdera berriak erantsi

daitezke, proposamenak testuinguruan jarri, garrantzitsuenak aukeratu, etab.

- Galdera bakoitzean, **lau aukera eman** daitezke: BAI / EZ / BATZUETAN / EZ DAKIT.
- Talde eragileak galdera bat diseina dezake ikasleentzat, eta **hainbat formatutara egokitu**: gela zehatzetan **zuzeneko galdetegia** egitea, edota online formatua prestatzea, aplikazio digital baten laguntzaz (Google forms, SurveyMonkey, Microsoft Form, etab.). Elkarriketa pertsonalizatuak egin daitezke, pertsona zehatzei zuzenduta, eta **espazio komunetan panel interaktiboak jarri**, gometsen bitartez botoa eman dezaten.
- Diagnostikoaz gain, argazkiak, materialak, etab. erabil daitezke, **azalpenak eta informazio kualitatiboa** emateko.
- Estrategiak sor daitezke, **erantzuten dutenak generoaren edo aniztasunaren arabera bereizteko**, eta, hala, errealitate desberdinak hobeto ezagutzeko.

Jarraian, zenbait galdera iradokitzen ditugu, Tratu Onen Arkuaren gaineko diagnostikoa egiteko.

# Tratu Onen Arkuaren 4 ardatzak

## 1

### ESPAZIOA ETA DENBORA

Espazio fisikoak diseinatzea, erosoak eta arriskurik gabeak, jasangarriak, pertsonalizagarriak eta aniztasunari egokituak. Bakarkako eta taldeko denborak errespetatu behar dira. Ekintzak sustatu behar dira, baina baita atsedena, mugimendua eta lasaitasuna ere.

## 2

### HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA

Hizkuntza afektiboa, ez bortitza eta adeitsua erabiltzea, eta entzute aktiboa eta enpatikoa aplikatzea.

## 4

### EMOZIOAK ETA AUTOZAINKETA

Giro emozional osasungarria lantzea, nork bere burua zaintzeko gaitasunak eskuratzen lagunduko duena.

## 3

### HARREMAN PERTSONALAK ETA BIZIKIDETZA

Pertsona arteko lotura konstruktiboak sortzea, elkarri zainduz, elkarlanean arituz eta gatazkak modu baketsuan kudeatuz.





## Zer egoeratan gaude, espazioari eta denborari dagokienez?

- ☐ Ikastetxean espazio partekatuak nola antola daitezkeen galdetu dizute.
- ☐ Ongietorria egiteko eta bilerak edo topaketak antolatzeko egokiak diren zenbait eremu ezagutzen dituzu.
- ☐ Espazio partekatu horiek apaintzen, errotuluak jartzen eta bertan lanak erakusten aritu zara.
- ☐ Zure ustez, ikastetxeko ingurunea eroso da (argia, aireztapena, tenperatura, elementu naturalak, koloreak, altzariak, etab.).
- ☐ Zure iritziz, ikastetxean ikasteko eta jarduerak egiteko eremu interesgarriak daude.
- ☐ Ikastetxeak intimitaterako eta erlaxaziorako egokiak diren txokoak badituela uste duzu.
- ☐ Zure iritziz, ikastetxean erabilitako materialak interesgarriak eta anitzak dira, egoera onean daude eta ekologikoak izan ohi dira.
- ☐ Zure gauza pertsonalak gordetzeko espazioak dituzu (armairuak, kaxoiak, esekitokiak, etab.).
- ☐ Zure beharrak (janaria, ura) asetzeko espazioak ezagutzen dituzu.
- ☐ Zure ustez, ikastetxea egokia eta irisgarria da desgaitasuna duten pertsonentzat.
- ☐ Ikastetxe barruan eta kanpoan ariketa fisikoa egiteko eta ingurunea esploratzeko balio duten espazioak ezagutzen dituzu.
- ☐ Ikastetxeko ibilbideak eta espazioak seinaleztatuta daude, eta laguntzarik gabe ibil zaitezke.
- ☐ Badaude zu laguntzeko eta babesteko pertsona helduak, hala behar duzunean.
- ☐ Espazio birtualetara sar zaitezke eta ekipo informatikoak erabil ditzakezu.
- ☐ Ikastetxearekin lotutako kanpo-espazioak seguruak eta egokiak iruditzen zaizkizu (aisialdiko hiri-espazioak, etxera edo eskolaz kanpoko jardueretara joateko bideak).
- ☐ Ikastetxean ingurumenarekin, jasangarritasunarekin eta naturarekiko errespetuarekin konpromisoa dute.
- ☐ Orduategiak eta egutegiak ezagutzen dituzu, eta burutuko diren jarduerak, bakoitzak irauten duen denbora eta atsedenaldiak ulertzen dituzu.
- ☐ Zure ustez, eskolak edo jarduerak hasteko eta amaitzeko orduategiak zaintzen eta betetzen dira.
- ☐ Denbora ondo banatuta dago, eskolak astunegiak ez izateko, eta mota desberdinetako jarduerak, jolasa eta denbora librea konbinatzen dira.
- ☐ Jarduera zailak edo konplexuak modu erakargarrian egiten dira, eta hainbat eratan ebatz daitezke.
- ☐ Zure denbora antolatzeko aukera duzu.
- ☐ Ezer ez egiteko edo atseden hartzeko denbora duzu.

## Zer egoeratan gaude, hizkuntzari eta komunikazioari dagokienez?

- ☐ Zurekin hitz egiten dutenean, ikastetxeko helduek zer esaten duten ulertzen duzu, hizkuntza atsegina, argia eta ulerterraza erabiltzen dutelako.
- ☐ Zure ustez, desgaitasuna duten ikasleek badakite informazioa nola lortu, eta erraz eskura dezakete, beren kontura eta heldu baten laguntzarik gabe.
- ☐ Ikastetxean, komunikatzeko hainbat modu daude (adibidez: idatziz, kartelen bidez, ahoz informazio emanez, elementu plastikoekin, etab.k eta hizkuntza eta lengoaia desberdinetara itzulita daude, hala behar izanez gero).
- ☐ Zure iritziz, eragiten dizuten gaiei buruzko informazioa eskura duzu.
- ☐ Pertsona helduek zalantzak argitzen dizkizute, eta horretan, aktiboki entzuten dizute eta errespetuz eta enpatiaz aritzen dira.
- ☐ Pertsona helduek modu afektiboan eta bortizkeriarik gabe tratatzen zaituztela sentitzen duzu.
- ☐ Ikastetxean badira hainbat espazio (entzuteko txokoa edo eserlekua, esaterako), eta norbaitek entzuteko beharra duzuenean, bertara jo dezakezue.
- ☐ Zirkuluan hitz egiteko jarduerak burutzen dira, modu demokratikoan eta inor baztertu gabe.
- ☐ Hitz egin nahi ez duten pertsonak isilik geratzea errespetatzen da.
- ☐ Ez zaituzte sekula pribatuak diren edo kalte emozionala eragin diezazuketen gaiez hitz egitera behartu.
- ☐ Zure datuak babestuta daudela uste duzu, eta zure bizipenak isilpean mantentzen direla.
- ☐ Zure ustez, teknologiak modu seguruan eta fidagarrian erabiltzen dira, komunikazio-tresnatzat erabiltzen direnean.
- ☐ Zure iritziz, irakasleek azkar erreakzionatzen dute, ikastetxeko haur edo nerabe batek abusua edo tratu txarra jasan duela adierazten badu.
- ☐ Pozik zaude ikastetxean.

## Zer egoeratan gaude, emozioei eta autozainketari dagokienez?

- ☐ Helduek zurekin konektatzen dute, eta adeitasunez laguntzen dizute zure sentimenduak eta emozioak adierazten, hala behar duzunean.
- ☐ Irakasleak zutaz kezkatzen direla sentitzen duzu.
- ☐ Irakasleek ulertzen zaituztela, zurekin empatia dutela eta zure lekuan jartzen direla sentitzen duzu.
- ☐ Gelan emozioez eta sentimenduez hitz egiten da. Horrek hausnarketa egiten eta erabakiak hartzen laguntzen dizu.
- ☐ Zure iritziz, helduek badakite estres-egoeretan emozioak erregulatzen eta oreka eta lasaitasuna mantentzen.
- ☐ Ikastetxean, konfiantza eta segurtasuna ematen dizuten lotura afektibo osasungarriak daude, irakasleen eta ikasleen artean.
- ☐ Zure ustez, helduek arreta jartzen dute, eta kezkatu egiten dira ikasleek ondoezik daudela adierazten badute.
- ☐ Irudi sexuala lantzeko jarduerak burutzen direla uste duzu.
- ☐ Zure iritziz, ikasleen jatorri kulturala, soziala eta gaitasunak ezagutzeko jarduerak burutzen dira.
- ☐ Norbaiti kalte edo min egiten dion hizkuntza edo egoera oro zuzentzen edo ekiditen da.
- ☐ Irakasleak zure autonomia eta ekimen pertsonala babesten eta sustatzen ditu.
- ☐ Irakasleek erabateko babesa ematen dizutela sentitzen duzu.
- ☐ Irakasleak paternalismorik gabe tratatzen zaituela sentitzen duzu (hau da, ez du zure ordeaz erabakitzen).
- ☐ Irakasleek haurren eskubideak defendatzen dituztela uste duzu.
- ☐ Zure ustez, irakasleek ikasleei beren ongizatea lantzen laguntzen diete, jarduera interesgarriak proposatuz.
- ☐ Irakasleek zure burua arriskuetatik babesten laguntzen eta irakasten dizute.
- ☐ Ikastetxean badira ikasleei autokontrol-estrategiak irakasten dizkieten pertsona helduak.

### Zer egoeratan gaude, harreman pertsonalei eta bizikidetzari dagokienez?

- ☐ Zure ustez, irakasleek hainbat jarduera burutzen dituzte ikasleen arteko lotura afektiboak eta zabaltzeko.
- ☐ Ikastetxeko bizikidetzak arauak ezagutzen dituzu
- ☐ Ikastetxeko bizikidetzak arauen lanketan parte hartu duzu.
- ☐ Zure ustez, ikastetxeko giroa atsegina eta eroso da, eta errespetuan oinarritzen da.
- ☐ Gaitasun sozialak praktikatzeko jardueretan parte hartu duzu.
- ☐ Ikaskideen artean integratuta sentitzen zara.
- ☐ Zure iritziz, gaitasun eta behar desberdinak dituzten ikasleen beharrak asetzen dira.
- ☐ Ikastetxeak ongi funtzionatzea zure erantzukizuna ere badela sentitzen duzu.
- ☐ Batzarretan, hitz-zirkuluetan edo bitartekaritza-taldeetan parte hartu duzu, ikastetxeko gatazkak konpontzen laguntzeko.
- ☐ Helduek euren autoritatea aplikatzen dutenean, ikasleekin afektuz aritzen direla eta zaintzen dituztela sentitzen duzu.
- ☐ Zerbaitez hitz egin behar duzunean edo arazoren bat konpondu, ikaskideekin bildu zaitezke eta ez da pertsona heldurik egon behar.
- ☐ Pozik zaude ikastetxean.



## Erne

**Generoa, aniztasuna eta ingurumena. Tratu Onen Arkuaren ardatz guztietan zeharka kontuan hartzeko:**

Diagnostiko parte-hartzailea lantzean, galdetegia erantzuten duten pertsonen ezaugarriak idatzi behar ditugu, joerak aztertzeko eta neskek eta mutilek berdin pentsatzen duten ikusteko (baliteke beharrian desberdinak izatea edo bizitako egoeren ikuspegia desberdina izatea). **Aniztasun desberdinei ere errepara diezaiekegu (gaitasunak, kultura, hizkuntza, etnia, jatorri migratzailea, etab.),** eta horietako bakoitzak zer iritzi duen aintzat izan.

Ekintzak proposatzean, genero eta aniztasun bakoitzak dituen beharrei erantzun behar zaiela gogoratu behar dugu. Gainera, proposamenek ingurumena errespetatu behar dute (baliabide gehiegi ez erabiltzea, materialak ahal den guztietan birziklatzea eta berrerabiltzea, ez kutsatzea, etab.).

# 3. saioa

## Hausnartzea eta hitz egitea: zer lortu nahi dugu?



Behin diagnostikoaren datuak lortutakoan, biltzarra edo topaketa antola daiteke, horiek partekatzeko. Ildo horretatik, datuak interpretatzean eta ekintzak proposatzean, berdintasuneko dialogoa sustatu behar da.

**Aurkezpenak eta galdetegiaren emaitzak parteka daitezke:** kartel interaktiboak egin, emaitzak online jakinarazi (programak berak sistematizatuta) edota taldeak irakasleen laguntzaz landutako emaitzak grafikoen bitartez erakutsi.

**Emaitzetatik abiatuta, galdera hauek planteatu daitezke, hausnarketa eta elkarriketa bultzatzeko:**

- Zerk eman dizue atenzioa bildutako datu guztietatik? Zuen ustez emaitza horietako zein dira onak eta zein txarrak?

- Neskek eta mutilek berdin pentsatzen dutela uste duzue? Eta adin desberdinetako neskek eta mutilek?
- Datuen arabera, zer arazo daude edo zer alderdi hobetu behar dira?
- Zer egin liteke, arazoari buruz sentsibilizatzeko eta emaitzak hobetzen laguntzeko?

Emaitzak landu ostean, hausnarketa egingo dugu.

**Arrazoiak azter daitezke, proposamenak iradoki, premiazkoak eta/edo erraz burutzen direnak lehenetsi, helburu jakinak aukeratu, helburua bete den esaten digun adierazle neurgarri bat ezarri, etab. Galdetegia bera proposamenak eta ideiak garatzeko abiapuntu egokia izan liteke, proposatutako gaien alderdi positiboak bilatuz gero.**

**Hausnarketak horma-irudi batean jaso daitezke, eta arbelean erakutsi.** Adibidez, post-it papertxoak erabil daitezke, emaitza onak eta txarrak sailkatzeko. Halaber, *visual thinking* teknikak erabil daitezke, ideiak, kausak, ondorioak, proposamenak, etab. antolatzen laguntzeko.

Hausnarketa horietatik abiatuta, **azken gogoeta bat egin daiteke, tratu onak sustatzean zer gauzari lehentasuna eman eta horiek nola lortu erabakitzeko.** Horrez gain, galdetegien emaitzak jendaurrean aurkez daitezke. Hartara, lehentasunak guztion partaidetzaz ezartzeko prozesu bat adostu daiteke, ez dadin talde eragilea erabakitzen duen bakarra izan.

### Baliabideak:

- [“Entzute aktiboa” sorta](#) (17. fitxa. Aldaketak planifikatzeko mapa). Educo-ren “Entzute aktiboa” kanpainaren materiala.
- *Visual Thinking* liburua: Nola aprobetxatu elkarlan bisuala pertsonak eta erakundeak ahalduentzeko?, Willemien Brand (2023). Editorial GG, SL. argitaletxea.

# 4. saioa

## Planifikatzea eta eraldatzea: zer egingo dugu?



Hasierako egoeraren ikuspegia bateratu eta proposamenak egin ostean, **lanari ekin diezaiokegu**. Sortutako ideia zehatzetatik abiatuta, **lan-agenda** bat sor daiteke, ikastetxeko eta hezkuntza-inguruneko ekintzak martxan jartzeko. Agian, proposamenetako bat sentsibilizazio- edo mobilizazio-kanpaina abiaraztea da. Hala balitz, Educo-ren *Gazte ekintzaileentzako gida* oso erabilgarria izan daiteke.

### Baliabideak:

- ["Entzute aktiboa" sorta](#) (ekintzen plangintza taula, 6. fitxa). Educo-ren "Entzute aktiboa" kanpainaren materiala.
- [Gazte ekintzaileentzako gida](#) Materiala: Educo-ren "Entzute aktiboa" kanpainaren materiala.

# 5. saioa

Ebaluatzea eta ikastea: zer lortu dugu?



Komenigarria da prozesu osoan zehar **behaketa-lanak eta balorazioak egitea**. Jarduerak burututakoan, prozesua taldean ebaluatzea iradokitzen dugu. Horretarako, besteak beste, galdera hauei erantzun diezaiekegu:

- Zer punturaino lortu da helburua?
- Zer ikasi dugu?
- Zer hobetu dezakegu?
- Nola sentitzen gara?
- Zer gauza lortu ditugu eta zer oztopo gainditu?

## Baliabideak:

- [“Entzute aktiboa” sorta](#) (batzar eta bileretarako behaketa-taula, 19. fitxa). Educo-ren “Entzute aktiboa” kanpainaren materiala.



## 6. saioa

**Komunikatzea, ospatzea eta aitortzea: nola hedatuko dugu jendartean?**



Taldeak horretarako aukerarik badu, **kanpora zabaltzea balora daiteke**. Hartara, galdera hauei erantzungo diegu:

- Lortu eta ikasi dugun guztia ikusita, aldaketarako eragile izan gaitezke?
- Nori konta geniezaioke? Noiz?
- Nola komunika genezake? (Adibideak. Ikusi *Gazte ekintzaileentzako gida*).
- Jardunaldi bat antolatu nahi al dugu, emaitzak, ikasitakoak eta erronka berriak partekatzeko edota beste pertsona batzuk ere tratu onak aplikatzen hastea helburu duten ekintzak proposatzeko? Nola antola genezake?

Gauzatu, ikasi eta lortu duzuen guztia kontatzera animatzen zaituztegu. **Educo-ren bitartez, zuek egindako lana ezagutarazi dezakezue**. Kontatu zuen esperientzia, helbide honetara mezua idatzita: [elmejortrato@educos.org](mailto:elmejortrato@educos.org)

### **Baliabideak:**

- Educo-ren "Entzute aktiboa" kanpainaren materiala.
- [Gazte ekintzaileentzako gida](#)

# Ondorioak eta gomendioak

## 1. TRATU ONAK GUZTION KONTUA DIRA

2. Gogoratu proposamen hau **haurren eskubideetan** oinarritzen dela.

3. Prozesu honetan, **alderdi guztiak "tratu onak" aplikatzera animatzen ditugu**, tratu ona nagusi duen ikastetxea lortzeko. Helduak haur eta nerabeen bidelagun gara, haiekin partekatzen dugu, eta haiengandik ikasten dugu.

4. Educo-k uste du **tratu onak kutsatu egin daitezkeela**. Inguruko pertsonak ongi tratatzen baditugu, haien adina, generoa, aniztasuna, baldintzak, etab. edozein direla ere, pertsona horien **erreferentziazko eredu** bilakatuko gara, eta tratu onak ikastetxetik gizartera zabaltzen dituen uhin hedakorra eragingo dugu.

## Gomendatzen dugu:

Zeregin horretan ez amore ematea.

Hasieran erronka eta helburu errazak zehaztea.

Aurrerapenak, emaitzak eta ikasitakoak ezagutaraztea.

Laguntzarik behar baduzue, Educo-ren lantalde teknikora jotzea. Helbide honetara idatz dezakezue: [elmejortrato@educu.org](mailto:elmejortrato@educu.org)

# Informazio gehiagorako

## Bibliografia

- Educo (2023a). Ikastetxeetan entzumen aktiboa hobetzeko gakoak. 2022ko "Entzute aktiboa" programan garatutako entzute-testaren emaitzak.
- Educo (2023b). Ongizaterako eta babeserako koordinatzailea: lehen urteko balantzea. Proposamenak, haurren kontrako indarkeriari aurre egiteko figura bat indartzeko
- UNICEF (2018). Indarkeriarik ezaren, bakearen eta tratu onen glosarioa (ikastetxeetarako)

## Webgrafia

- Nazio Batuak. Haurren Eskubideen Hitzarmena.
- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrei eta nerabeei indarkeriaren kontra babes osoa emateari buruzkoa (HNIBLO)
- Haurren eta Nerabeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Estrategia (HNIDE)

## Educo-ren baliabideak

- Educo-ren Babeserako eta Tratu Onetarako Politika
- PROTEGEmos programa
- "Entzute aktiboa" kanpaina
- "Tratu Onen" kanpaina



**Educo gara, 18 herrialdetan baino gehiagotan jarduten den GKE bat. Haurren ongizatea eta eskubideak babesten ditugu, batik bat kalitatezko hezkuntza jasotzeari dagokionez.**

Mundu osoko haur eta nerabeak babesten ditugu, bereziki zaugarritasun- edo pobrezia-egoeran daudenak eta garatzeko aukerarik ez daukatenak. Ez dugu inoiz amore ematen, datorrena datorrela: krisiak, gatazka armatuak eta larrialdi-egoerak izan arren, hezkuntzak aurrera egin behar du. Izan ere, hezkuntza premiazkoa da: indarberritu, ahaldundu eta babestu egiten gaitu.

 [educoco.org](https://educoco.org)

 [educoco\\_ong](https://www.instagram.com/educoco_ong)

 [educocoONG](https://www.facebook.com/educocoONG)

 [Educo\\_ONG](https://twitter.com/Educo_ONG)

